


Euskal AEn immigrazioek % 50 baino gehiago egin zuten gora 2022an, eta 60.000ra hurbildu ziren

Emigrazioak 37.000ra iritsi ziren, % 3,3 gehiago izanik, eta migrazio-saldo positiboa 2000ko urteetako maximora iritsi da, 22.171 pertsonarekin

2022an 59.194 immigrazio izan ziren eta 2021ean 39.427; Eustatek landutako datuaren arabera, beraz, % 50,1 igo ziren. Emigrazio-kopuruak ere gora egin du, nabarmen gutxiago bada ere, eta 2021ean 35.839 izan ziren eta 2022an % 3,3 gehiago, 37.023, alegia. Immigrazioen igoera handiaren ondorioz migrazio-saldoa 22.171 pertsonakoa izan da, pandemia aurreko hazkundearen bidea berreskuratuta, eta baita gaindituta ere, 2000ko urteetako maximora iristeraino.

Euskal AEko migrazioak



Eustat. Migrazio mugimenduen estatistika

Migrazio-saldoak goranzko joera jarraitu du urtean zehar: urtariletik ekainera 9.881 pertsonako saldo positiboa izan zuen eta urtearen bigarren erdian 12.290 pertsonakoa.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak 11.818 pertsona gehiago izan zituen, eta kopuru absolutuetan migrazio-saldo altuena izan zuen, baita kopuru erlatiboetan ere (aurreko urteko igoera baino 9 aldiz handiagoa). Gipuzkoak 6.982 pertsonako saldo positiboa izan zuen (2021ean baino 8 aldiz handiagoa) eta Araban 3.371 pertsonakoa (2021ean baino 2,5 handiagoa). Hiru lurralde historikoetako eskualde guztietan da positiboa migrazio-saldoa, eta salbuespena Arabako Mendialdea da, saldoa 10 pertsona gutxiagokoa baita.


Hiriburuak kontuan hartuz gero, hiruek dituzte saldo positiboak: Bilbok 4.529 pertsona gehiago, Donostiak 2.098 gehiago eta Gasteiz 2.863 gehiago.

Euskal AEn eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 2022an 1.154 pertsonako saldo negatiboa izan zen, eta 2021ekoa baino handiagoa izan

da (-573 pertsona). Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa, 2021ean 4.161 pertsonako positiboa izan zena, sei aldiz handiagoa izan da, hau da, 23.325 pertsonakoa.

Kanpoko mugikortasun-tasak gora egin du, immigrazioen igoeraren ondorioz

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasun geografikoa 2021ean 1.000 biztanleko 34,3koa izan zen eta 2022an 44ra igo da. Lurraldez lurralde, Araba ‰ 46,8ra iritsi zen, Bizkaia ‰ 44,1era eta Gipuzkoa ‰ 42,6ra.



Iturria: Eustat. Migrazio-mugimenduen estatistika

Gainerako autonomia-erkidegoekiko migrazio-mugimenduak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu Euskal AEk horietako 7rekin migrazio-saldo positiboa izan zuela, eta gainerako 10ekin saldo negatiboa. Horrela, 2022an saldoa -1.154 pertsonakoa izan zen eta aurreko urtean -573koa.

Euskal AEtik joale gehien erakarri zituzten autonomia-erkidegoak hauek izan ziren, eta hurrenkera horretan: Gaztela eta Leon, Madril, Kantabria, Katalunia eta Andaluzia. Bost autonomia-erkidego horiek jaso zituzten gure autonomia-erkidegoa beste batzuetara joateko utzi zuten pertsonen % 57,5.

Autonomia-erkidego horiek izan ziren immigrante gehien ekarri zituztenak ere, honako behearazko hurrenkera: Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Katalunia eta Andaluzia. Bost horietatik etorri ziren Estatutik iritsitako immigrante guztien % 57,6.

Andaluzia da saldo positibo altuena duen autonomia-erkidegoa (201 pertsonakoa), eta Gaztela eta Leon saldo negatiboena duena, -489 pertsonakoa.

Immigratzaileen batez besteko adina ia bi urte jaitsi da, 32,5 urtera arte, eta emigratzaileena berriz 37,3 urte da. 20-39 urte bitarteko pertsonen % 50 egin zituzten, eta emigrazioen % 47.

Sexuari dagokionez, aldeek gutxitzen jarraitzen dute: immigratzaileen % 51 gizonak dira eta % 49 emakumeak; eta emigratzaileen kasuan egoera antzekoa da: % 53 gizonak dira eta % 47 emakumeak.

Immigratzaileen % 72k eta emigratzaileen % 46k atzerriko nazionalitatea zuten

Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen immigrazioak 42.499 izan ziren 2022an. Haietatik 6.840 beste autonomia-erkidego batzuetatik etorri ziren, batez ere Madriletik, Kataluniatik eta Andaluziatik, eta 35.659 zuzenean atzerritik.

Bestalde, atzerritarren emigrazioak 17.153 izan ziren, guztien % 46, eta % 69 atzerriko herrialderen batera joan ziren. Horrela, atzerritarren saldoa positiboa izan zen: 25.346 pertsonakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak etxez aldatzen direnean, % 61 erkidegoan bertan geratzen dira

Euskal AEko biztanleriaren % 11,3k bizileku-aldaketaren bat egin zuen 2022an. Ohiko bizileku-aldaketa horien % 61 autonomia-erkidegoan bertan egin ziren eta gainerakoak autonomia-erkidegotik kanpora.

Euskal AEn ohiko bizileku aldaketak 247.151 izan ziren guztira. Horietatik 96.718 udalerri berean egindako bizileku-aldaketak izan ziren. Autonomia-erkidego barruko mugimendua, hau da, jatorria eta helmuga Euskal AEko udalerriak dituenak, 54.216koa izan zen.

Era berean, kanpoko edo erkidegoz kanpoko immigrazioak, hau da, jatorria autonomia-erkidegotik kanpora duten eta helmuga Euskal AE duten immigrazioak, 59.194 izan ziren; horietatik 39.264 atzerritik iritsi ziren, 2021ean baino bi aldiz gehiago (19.615 pertsona).

Azkenik, kanpoko edo erkidegoz kanpoko emigrazioak, hau da, autonomia-erkidegoko udalerri batetik autonomia-erkidegotik kanpora izandako bizileku-aldaketak, 37.023 izan ziren; eta horietatik % 43k (15.939 pertsonak) atzerria izan zuten helmuga.

Migrazio-mugimendu eta -saldoen bilakaera. Euskal AE. 1998-2022

	Inmigrazioak		Emigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Guztira	Aldakuntza-indizea (1988 = 100)	Guztira
1988	8.014	100	18.103	100	-10.089
1992	9.006	112	13.668	76	-4.662
1995	11.316	141	16.130	89	-4.814
1999	16.103	201	17.291	96	-1.188
2000	20.022	250	17.462	96	3.903
2001	25.775	322	18.696	103	7.861
2002	25.967	324	19.730	109	6.082
2003	28.467	355	22.216	123	4.864
2004	30.328	378	21.304	118	8.116
2005	33.993	424	20.672	114	12.256
2006	37.147	464	22.689	125	11.827
2007	41.361	516	23.669	131	16.835
2008	44.630	557	29.941	165	14.689
2009	38.368	479	31.815	176	6.553
2010	38.591	482	33.425	185	5.166
2011	41.011	512	32.819	181	8.192
2012	34.362	429	34.589	191	-227
2013	33.987	424	35.943	199	-1.956
2014	35.491	443	31.889	176	3.602
2015	35.917	448	32.555	180	3.362
2016	40.126	501	31.255	173	8.871
2017	41.861	522	31.136	172	10.725
2018	46.982	586	32.258	178	14.724
2019	52.306	653	32.838	181	19.468
2020	35.221	439	30.709	170	4.512
2021	39.427	492	35.839	198	3.588
2022	59.194	739	37.023	205	22.171

Data 2023ko Abuztuaren 11

Iturria: Eustat. Migrazio Mugimenduen Estatistika

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Telf.: 945 01 75 62